

txintxarri



Makilak eskuan eta ibili munduan

Menorcan egon dira Lasarte-Oriako Ipar Martxako kideak, Aste Santuan / 6-7


ARANTXA SAROBE

Aurrekontuak onartuta

22,8 milioi euro aurten zertan erabiliko diren azaldu du Jesus Zaballos alkateak / 2

III. Antzerki Topaketez gozatu zuten lasarteoriatarrek martxoa amaieran, Kukukaren eskutik / 4

Harrobia indartsu dago txirrindularitzan eta igeriketan; Espainiako Txapelketan domina ugari lortu dituzte / 10-11



txalaparta hastapen ikastaroa*

Apirilaren 23tik ekainaren 19ra bitarte (*helduak)

Eguna: Astearteetan 17:30etik 19:30era edo Astelehen eta asteazkenak 16:00etatik 17:00etara

Izen-ematea: Apirilaren 20ra arte. **Plaza mugatuak.**

Prezioa: Ttakuneko bazkideak 55€, besteak 58€.

Izen-ematea: Ttakunen bulegoan • kultura@ttakun.eus
943 37 14 48 • 695 785 389



Udal ordezkariak astearteko udalbatzarrean. TXINTXARRI

la 23 milioi euroko aurrekontua du udalak

Astearteko udalbatzarrean aurrekontuen proiektua onartu ostean, horien berri eman du Jesus Zaballos alkateak: 22.874.708,75 euro zuzendu dira proiektuak aurrera eramateko. Alderdiek aurrekontuen zirriborroa egiteko azaldu duten prestutasuna eskertu du alkateak

Maddi Noriega

Aste Santuko atsedean egunen osteko astea indartsu hasi da Lasarte-Orian. Hilabeteroko hitzordua izan da astearte arratsaldean, udaletxean: Ohiko Udalbatzarra. Hamahiru puntuko gai ordenari jarraitu diote udal ordezkariak, eta bi ordu eta erdiko iraupena izan du. Eztabaidarako gaien artean,

2018. urteko aurrekontuak ekarri dituzte mahai gainera, eta PSE-EEren aldeko zazpi botorekin, eta EAJ, ADLOP eta PP alderdien abstentzioarekin onartu egin dituzte aurrekontuak. EH Bilduk aurkako boza eman du. Behin onartuta, prentsaurrean aurkeztu ditu Jesus Zaballos alkateak.

Guztira EH Bilduren osoko emendakin bat eta 29 emendakin

partzial aurkeztu dira. Azken horietatik hamabost onartu dituzte, eta 11 bota dituzte atzera. Gainerako lauak aurkeztu dituzten alderdiek beraiek erretiratu dituzte.

22.874.708,75 euroko aurrekontua osatu dute. Horietatik 2.000.000 euro aurreko urteetako konpromiso kredituak dira, hau da, adjudikatuta dauden

gastuak dira (ezin izan dira aurrera eramán eta aurrera egingo dituzte). Horien adibide jarri du argiteria. Herriko asfaltatze lanak egiteko 1.537.389,86 euro zuzenduko direla ere jakinarazi du.

Inbertsio gisa eta ADLOP alderdiaren eskakizunari helduta, baratze ekologikoak egiteko asmoa agertu dute, eta 40.000 euro bideratuko dituzte horretara. Herri barruko autobus zerbitzuan "hobekuntza" batzuk izango direla ere iragarri du. Egun astelehenetik ostiralera bitarteko zerbitzua eskaintzen du Manttangorri, baina lasarteoriatarren eskakizunei erantzuteko, abuztuan ere, garraio zerbitzua eskainiko dute (astelehenetik ostiralera, 11 bidaia egunero). 25.701,96 euro aurreikusi dituzte horretarako.

Zenbait eraikinaren birgaitze lanak egiteko ere diru sorta bat gorde dute. Besteak beste, Sasoeta-Zumaburu ikastetxe birgaitze lanetarako 33.149,05 euro, edota 120.000 euro Karmengo Kapera berritzeke.

Beste zenbait inbertsioren barruan, EH Bildu alderdiaren proposamenari jarraiki, Manuel Lekuona kultur etxeke eserlekuak aldatuko dituzte, 130.000 euroren trukean. Bidegorri eremua ere zabalagoa izango du Lasarte-Oriak aurrerantzean. Urbil merkataritza gunetik Txikierdira bitarteko zatia egingo dute, 45.500 euroko aurrekontuarekin.

Aniztasunaren plana ere egingo du udalak. Lasarte-Oriako etorkinak herrian hartzeko egitasmoa izango da eta 15.000 euroko kostu izango du. Horrekin batera, etxez etxeke arreta zerbitzuak iguera bat izango duela jakinarazi du Zaballosek: "Zerbitzuak %2,48ko iguera izango du, hau da, iaz baino 17.000 euro gehiago bideratuko ditugu horretara".

Hezkuntzari dagokionean, eskola materiala erosteko diru laguntzei eutsi egin ditu udalak. Aurreko urtean bezala, 10.000 euroko aurrekontua izango dute laguntza horiek.

Parte hartze prozesuak ere egingo dituzte. Besteak beste, lur azpiko zaborrontzien, aparkalekuen eta Askatasunaren parkearen inguruan galdetuko zaie herritarrei.

Udalaren egoera ekonomikoa

Alkateak jakinarazi du Lasarte-Oriako Udalaren egoera ekonomikoa "oso ona" dela: "%87,28ko zorpetze margena du udaletxeak, eta inbertsio handiak egingo ditugu zorrik eragin gabe".

2005. urtean eskatutako kreditu bat ordaintzen ari da udala egun. Urtarrilaren lehenean 1.027.595 euro zituen ordaintzeko, eta 2020. urterako kitatuko dute.

Udalbatzarra

Aurrekontuekin batera, eztabaidarako beste zenbait gai izan dira udalbatzarrean. EH Bilduk, Kataluniako atxilotetak direla eta, adierazpen instituzionala jarri du mahai gainean, eta EAJ eta ADLOP alderdien babesarekin aurrera atera da mozioa.

ADLOPeK, berriz, bi mozio aurkeztu ditu. Energia efizientzia eta aurreztearen inguruko lehena, eta *Euskadi Lagunkoia* udalerrien sareari buruzkoa bigarrena. Biak onartu dituzte aho batez.

Udal Langileen Komitearen mozioa eztabaidatu dute gero. Udaleko Lan Hitzarmenean 91. eta 98. artikuluetan jasotzen dena betetzeko eskaerari baiezkua eman diote EH Bilduren, EAJren eta ADLOPen babesarekin.

Galdera eta erreguen tarteark itxi zuen hilabeteko hitzordua.

Azken egunetako euriteek mehatxu egin dute berriro ere

Segurtasun Sailak Uholdeen Larrialdi Plan Bereziaren Alerta fasea deklaratu du azken egunetako euriteen ondorioz

Txintxarri

Hazi-hazi eginda igaro da egunotan Oria ibaia Lasarte-Oriatik. Azken egunetako euriteen ondorioz, larri ibili dira ibai ertzak, errekek bere bidea gaindituko zuen beldur.

Alerta gorria ezarri zuen Segurtasun Sailak asteazkenean, uholdeen arriskuagatik, eta herritarrei kontuz ibiltzeko deia egin zien. Gomendioak ere egin zituen Lasarte-Oriako Udalak, besteak beste, ibilgailuak ibai

ertzetan ez aparkatzea, ibaiak gainezka eginez gero urak eramán zitzakeen produktuak (batez ere kutsakorrak) erretiratzea, edota ur putzuak sor zitezkeen lekuetatik ibilgailuak ateratzea. Hori dela eta, Okendoko lur azpiko garajeetako autoak plazan igaro dute asteazken gaua.

Ostegunean ere euria egin ez da gehiago hazi eta Segurtasun Sailak ezarritako alertak bertan behera utzita, egoera kontrolatuagoa izan da.



Oria ibaia hipodromoko zubi azpitik barrena. TXINTXARRI

Erabakitzearen eguneroko adierak

Marisol Martin, Joanes Maiza eta Joxe Mari Izeta elkartu ditu Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok, gizarteko gai garrantzitsuenen gainean herritarrek erabakitzeko duten aukerari buruz hitz egiteko. Suitzako herri galdeketen adibidea ere plazaratu dute

Adrian Garcia

Askotan, erabakitzeko eskubidearen inguruan hitz egitean, burura etortzen den lehen gauza da: independentzia erreferenduma. Haatik, fenomeno zabalagoa da erabakitzeko ahalmena; bizitzako beste hainbat eremutan erabili daiteke. Finean, herritarren ahalduntzea esan nahi du, egunerokoan eragiten dieten auzietan hitza hartzeko. Lasarte-Oriako Gure Dago-k horixe erakutsi nahi izan du Mercero aretoan eginiko solasaldian. *Erabakitzeko eskubidea, zertarako?* hitzaldian hiru pertsonaren esperientzia kontatu dute.

Marisol Martin, Joanes Maiza eta Joxe Mari Izeta. Bakoitzak bere eremuan, hirurek lan egin dute jendeak beste aukera bat izan dezan. Lau urtean behin bozkatzera mugatu ez dadin haien boterea. Martinek Lasarte-Oriako udalerrria sortzen egin zuen lan, emakumeen zentroa sortu zuen 1970eko hamarkadan, eta orain pentsio justuen aldeko borrokan murgilduta dago. Maizak eredu kooperatiboa energiaren alorrera eraman du Euskal Herrian, herritarrei erregai fosilez kanpoko alternatibak emateko. Azkenik, Izeta Hitzartu prozesu parte hartzailearen sustatzailetako bat da, Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren inguruan kontsentsuzko erabaki bat hartzeko.

"Erraza da esatea: 'nahi dutena egiten dute'. Baina ekarpenik ez baduzu egiten ez du ezertarako balio". Komunitateari eragiten dizkioten gaietan buru-belarri sartu da Martin gaztetik, eta orain ere berdin jarraitzen du. "Apostua egin behar da, herriaren arazoak konpontzeko parte hartu behar da. Politikan ez duela sartu nahi esaten du jendeak. Baina politika dena da, erosten ditugun patatak eta testu liburuak".



Martin, Maiza eta Izeta, Gure Esku Dago-ren solasaldian. TXINTXARRI

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN BESTE HAMAIA ADIERAK AZTERTU DITUZTE MERCERO ARETOAN

Pentsionisten mobilizazioaren hastapenean izan zen, eta 200 pertsona baino gehiago mobilizatzea lortu du pentsioen gainbeheraren aurka protesta egiteko.

Kooperatiba, energian

Maizak ere hautua egin zuen. Belgikan orain hamar urte ikusitako ereduak Euskal Herrian funtzionatu zezakeela ikusi, eta lanean hasi zen. Goieneko kooperatiba sortu zuen; bakarrik energia berriztagarria erosten dute, eta haien bazkideen artean banatzen dute, elektrika txiki baten antzera. Egun 8.000 bazkide baino gehiago dituzte.

Bestalde, hondakinen kudeaketaren eremura eraman nahi du Izetak erabakitzeko

eskubidea. Hortik dator Hitzartu prozesuaren izena. Gizarteak gai eztabaidatsu horren inguruan hitza hartzea du helburua, interes politiko eta ekonomikoen gainetik "erabaki ekonomikoa eta osasuntsua" hartu dadin.

Suitza adibide

Beste herrialdeetan egiten dutenari ere erreparatu diote. Suitzan bizi den Ismael Oiarzabal lasarteoriatarren jarri dira harremanetan, eta haren ahotik entzun dute herrialde horretako eredu. Orain gutxi hiru herri galdeketa parte hartu du, hirurak aldi berean eginak. Udaleko aurrekontuaren, Genevako festen eta hirigintzako auzi baten inguruan bozkatu dute.

Halere, gonbidatuek muga batzuk ikusten dizkiote herri galdeketei. "Nire ustez gai batzuk ez dira erabakigarriak. Adibidez, energia nuklearra bultzatzea. Arriskua handiegia da", uste du Goieneko Maizak.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Masterra

Zer nahi duzu lehendabizi? Albiste ona ala txarra? Nork ez du inoiz halako galderarik egin? Galdera hori egin izan didatenetan, gehienetan, nik behintzat, txarretik hasi nahi izaten dut ahalik eta ondoen amaitu eta aho zapore gozoarekin geratzeko. Neure buruari egiten diodan tranpatxo da, badakit, baina hori ere baleko izaten da askotan. Oraingoan atzekoz bestera egingo dut ordea: umoretik hasi eta erremediorik gabe, serio bukatuko dut. Cifuentes andereak, Madrilgo presidentea, ustez masterrik egin ez eta bere kurrikulumean sartu izanak algara eragiten du. Iruzurra, gezurra, ridikulua eta beste hainbat gauza egin ditu "ustez" (ez dago epairik oraindik baina...) PPko agintariak. Besterenganako lotsa sentiarazi dit, berak, itxura batean sentitu ez duen lotsa sentitu dut nik haren agerraldi bakoitzean. Kulturistek egunero lantzen dituzte giharrak gero sendo itxuran agertzeko, intelektualki sendo itxuran agertu nahi izan du Cifuentes andereak baina master bat egiteak eskatzen duen eguneroko lanik egin gabe. Tormesko itsumutilaren eskolakoa atera zaigu, pikareskaren eskolakoa. Barregarri geratu da ordea putzutan harrapatu dutelako, mingain gaiztoen esanetan PPren barruko arerioek argibideak filtratu ostean. Trufa, iseka eta halakoetarako gogoia ematen du hasiera batean baina pentsatzen hasita negarguretik gehiago izan beharko genuke. Gisa honetako agintariak merezi dituzte madrildarrek? Eta okerrago oraindik: eskola horretako kideak dituen alderdi baten esku dago estatuko gobernua? Zipristinak beti harrapatzen du urrun dagoela uste duena ere: geu agian. Sentitzen dut ilunetik amaitu izana baina ezingo didazue leporatu iragarri ez dudarik. Ah, nik ez dut masterrik, ez egiazkorik ez eta oparitutakorik ere. Lasai ederrean nago.

Euskaraldia izango du oinarri Udaltopok

Euskaraldia puntuz puntu. Aurtengo puntuari erantzunak eta datorrenari galderak. Lelo horixe izango du aurtengo Udaltopok, udaletako euskara zerbitzuen bilkurak. Hain zuzen, Euskaraldia izango dute oinarria maiatzaren 17an eta 18an, Lasarte-Orian.

Bertan parte hartzeko izen emateak ireki dira, eta maiatzaren 4ra arte izango da horretarako aukera. Guztira, bederatzi ponentzia izango dira.



Antxordoki eta Alkorta. KULTURATELIER

"Azaroan abian jarriko dugun Euskaraldia izango da arreta gune nagusia. Ate joka ditugun erronkez hausnartzeko balioko digu", aurreratu du Estitxu Alkorta, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendariak.

Escocia

IRTEERA IRAILEAN
Nooak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

NOOAK BIDAIAK

T. 943 373 613 • info@nooak.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Hika teatroa konpainiak *Txarriboda* antzezlana eskaini zuen. TXINTXARRI

'Antzerkiaren Nazioarteko asteburua' Lasarte-Orian

Kukuka Dantza eta Antzerki eskolaren eskutik, III. Antzerki Topaketaz gozatu zuten lasarteoriarrek martxoaren 23an eta 24an. Zabala eta anitza izan zen egitaraua: bost emanaldi eta familia osoarentzako tailer bat

Txintxarri

Martxoaren 27, Antzerkiaren Nazioarteko eguna ospatuko zen mundu osoan zehar. Lasarte-Orian ere bai, jakina. Dena den, Antzerkiaren Nazioarteko egunaz bainoago, Antzerkiaren Nazioarteko asteburuaz gozatu genuen gurean martxoaren 23an eta 24an. Egitarau anitza eta zabala prestatu zuen Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak: bost antzezlana eta familia osoarentzako tailer bat, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan. Emanaldi horiek

guztiek osatu dute aurtengo III. Antzerki Topaketak.

Hika Teatroaren *Txarriboda* antzezlana ireki du aurtengo egitaraua. Herritarrek Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioa bete zuten ostiral arratsaldean, Agurtzane Intxaurragak sortutako lana ikusteko.

Larunbatean, berriz, hainbat aukera: goizean, familia ugari animatu ziren Sasoeta ikastetxeko gimnasioa joan eta adin-tarte guztiei zuzendutako antzerki tailerlean parte hartzea. Bukatu

eta gero, Gaztelekura joan ziren hainbat, *Kalean otso, etxean uso* emanaldia ikustera. Arratsaldean jarraitu zuten emanaldiek; Itakunenean, 18:00etan, *Inor ez dator* taularatu du Amaia Irazabalek; handik ordubetera, Abend Kafe Antzokian, *Gudua* antzerkia eskaini zuten Dorleta Urretabizkaiak eta Asier Hernandezek; eta, bukatzeko, Nerea Gorriti eta Ane de Miguelek osatutako bikoteak *Zaharrak berri* lana ekarri du Furia Beltza tabernara.



Adin guztietako herritarrek gozatu zuten kokaleku ezberdinetan eskaini ziren antzerki saioez. TXINTXARRI



Carmen operaren ikustaldia egin zuten asteazkenean. TXINTXARRI

Opera, zarzuela eta musika klasikoaz gozatzeko aukera

Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak VI. Musika Asteko egitarau erakargarria prestatu dute

Txintxarri

Georges Bizet musikariaren *Carmen* operak ireki du Musika Astearren VI. edizioa.

Asteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioa hurbildu ziren zaletuek Royal Opera Houseko bertsio modernoa ikusi zuten formatu digitalean. Carmen zigarro-egilearen eta On Jose soldaduaaren istorioaren nondik norakoez gozatu ahal izan zuten New York hiria atzeoial izanik.

Astebururako programatu dituzte beste bi emanaldiak. gaur ostirala, 19:30ean hasita, ganberako kontzertua eskainiko

du Ludwig Van zazpikoteak, Brigitarren komentuan.

Pieza ezagunak joko dituzte: W.A. Mozarten *Biolin, klarineta eta fagoterako 1go hirukotea*, eta L. van Beethovenen *Haizezko eta harizkoetarako Mi b Maiorreko Septimino* izenekoa.

Manuel Lekuonako auditorioan eskainiko da hirugarren eta azken emanaldia. Larunbat arratsaldean, 19:30ean. Sasibill konpainia donostiarrak igoko da oholta gainera, eta Jacinto Guerreroren *La rosa del azafran* zarzuela eskainiko du. Konpainia horretako koruak eta orkestrak interpretatuko dute obra hori.



ISAAC FARRÉ

Apirileko feria Sasoeta auzoan

Sasoeta Sasoian elkarteak auzoko I. Apirileko feria antolatu du. Ostirala arratsaldetik larunbata gauera arte, Sevillako Apirileko feriako giroa nagusi izango da Jaizkibel plazan. Dantza, musika eta hainbat ekintza izango dira guztien gusturako. Lasarte-Oriako Udala, Semblante Andaluz elkarte eta auzoko merkatarien laguntza izan du jaialdi berezia antolatzeko.



Arteaga II.a, txotx egiten. ISAAC FARRE RICO

Arteagak ireki du Bus tabernako 'sagardopotea'

Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, 'sagardopotea' egin dute herriko hainbat tabernatan. Inguruko sagardotegietatik ekarri dute edaria, eta pintxoak eskaini zaie bertaratutakoei. Aterpeko 25. urteurrenerako tiketak salgai jarri dituzte

Txintxarri

Gutxi geratzen zaio txotx denboraldiari, baina oraindik badago astia sagardoaz giro onean gozatzeko. Eta ez da zertan sagardotegietara joan beharrik horretarako. Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta *sagardopotea* egin dute hainbat tabernatan. Zuzenean kupeletatik txotx egiteko aukera eskaini dute, eta pintxoak ere eman dute 1,5 euroren truke.

Txartel kafetegia, Zumaburu, Txema, Yolanda, Eguzki, Avenida, Buenetxea, Primeran,

Arkupe, Bus eta Viña de Mar tabernetan egin dute ekintza. Ttiriki-ttarraka musika elkarteak girotu du trikiti eta pandero doinuekin arratsaldea. Tabernaz taberna ibili dira musikariak.

Sagardotegietatik zuzenean

Aurtengo *sagardopotean* parte hartu duten ostalariek hainbat sagardotegitako sagardoa eskaini dute: Txartelek eta Txemak, Mina etxeko sagardoa; Avenidak eta Busek, Aburuzakoa; Zumaburuk,

Izetakoa; Yolandak, Itxas-Burukoa; Eguzkik, Rufinokoa; Buenetxeak, Alorreneakoa; Primeranek, Saizarrekoa; Arkupek, Begiristaingoa; eta, azkenik, Bereziartuakoa Viña del Mar tabernak.

Gonbidatu berezi bat izan zuten Bus tabernan. Orain gutxi ireki zuten berriro taberna, itxita egon ostean. Asier Artega pilotariak egin zuen txotx irekiera bertan. Igandean buruz buruko lehen kanporaketa jokatu du Lasarte-Oriako kirolariak.



TXINTXARRI

Froilan Elespe gogoan

Lasarte-Oriako Ilarraltzueta hilerrian elkartu ziren PSE-EE alderdiko hainbat kide martxoaren 24an, hamazazpigarren urtez, ETAk eraildako Froilan Elespe zinegotzia gogoratzeko. Ondoren, hilerritik jaitsi eta Lasarte-Oriako Casa del Pueblon elkartu ziren herriko PSE-EEko kideak eta Elesperen ahaide eta lagunak Danok Kide elkarteari Froilan Elespe saria emateko.



TXINTXARRI

Kataluniarekin bat eginda

Espainia Kataluniako prozesu subiranistarekiko ezartzen ari den errepresioa salatzen, hainbat herritarrek egin dute bat EH Bilduk, Gure Esku Dagok eta gehiengo sindikalak deitutako *Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat* elkarretaratzearekin. Martxoaren 25ean izan zen elkarretaratzea, udaletxe parean.

Antolatzailea: URUMEAKO **KRONIKA** Laguntzailea: **INSALUS**

BERTSO GUTIZIAK

23:30 etan autobusa **HERNANIRA** bueltatzeko IZENA EMAN Dobera-Kronikan 943 33 08 99

MAIALEN LUJANBIO AITOR SARRIEGI

UNAI AGIRRE AITOR MENDILUZE

HERNANI KRONIKA, KIXKAL, ARALAR GOZUETA AMAIA KAFETEGIA **APIRILAK 20 19:00ETAN** Basque Culinary Centeren

ERENOTZU IRRINTZI ASTIGARRAGA IKATZA

Gai-jartzailea: **AMAIA AGIRRE**

ONDOREN GUTIZIA BEREZIK OSATUTAKO LUNTX-AFARIA **ONGI ETORRI!**

22€

Adrian Garcia

Orain urte batzuk ekarri zuten ipar martxa Lasarte-Oriara, eta ordutik zaleak bereganatu besterik ez ditu egin. Asteazkenero biltzen dira Ostadar SKTko kideak, bastoiak eskuetan ariketa fisikoa egiteko. Horrez gainera, hilabete behin irteera bat egiten dute. Baina ez hori bakarrik. Lehen bidaiaria handia egin dute hamabost kidek. Menorcan izan dira Aste Santuan, Cami de Cavals bideko etapa batzuk egiten. Herrira bueltatu eta gutxira izan dira TXINTXARRI-rekin, abenturatxoaren nondik norakoak kontatzeko.

Bidaia egiteko ideia kasualitatez sortu zen. "Irteera bat egin genuen Bidasoara, eta Txingudi aldera egin genuen", azaldu dute Rosa Ormazabalek eta Junkal Perezek, Ostadar Ipar Martxako kideak. Orduan ikusi zuten hegazkin bat Hondarribiko aireportutik aireratzten. "Zergatik ez dugu egiten guk bidaia bat?", galdetu zuten euren artean.

Norakoa azkar batean aukeratu zuten. Izan ere, Ormazabalek ipar martxako ikastaroetatik horrelako bidaiak eginak dituen pertsona bat ezagutzen du. "Dena egin eman zigun hark; hotelak, ibilaldiak... dena".

Sei egun egon dira Balearretako uharteetan, Pazko Astea, astelehenetik larunbatera bitartean. Oporretan bai, baina atsedean gutxi izan dute. Egunerogunero goizean goiz jaiki ostean bastoiak hartu eta ibiltzeari ekin diote. "Uhartea osoa zeharkatzen du Cami de Cavals-ek, 300 kilometro baina gehiago. Guk etapa batzuk egin ditugu. Bi iparraldean, eta beste bi hegoaldean. Denetatik ikusi dugu: basoa, kosta, mendia...". kontatu du Ormazabalek. Betebehar bakarria zuten: gutxienez egun batean Ostadarreko elastikoa janzea.

Ez da ohiko bisita izan Menorcakoa. Izan ere, turistek zalantzarik gabe egin ohi dute uretara, kostalde malkartsuak sortzen dituen hondartzatxoak baitira uhartearen ikur. "Garai honetan joateak badu gauza txar

"UHARTE OSOA ZEHARKATZEN DU CAMI DE CAVALS- EK; 300 KILOMETRO BAINO GEHIAGO DITU"



Ostadar SKT ipar martxako kideak, elastikoak soinean, Menorcan ateratako talde argazkian. OSTADAR IPAR MARTXA

"Familia bat gara; Aste Santua guretzat hartu dugu"

ROSA ORMAZABAL ETA JUNKAL PEREZ OSTADAR IPAR MARTXAKO KIDEAK Menorcan astebetetz ibili dira Ostadar Ipar Martxako hamabost kide, Cami de Cavals bideko etapak egiten. Arrakasta ikusirik, bidaia urtero egingo dutela diote.

bat: ura oso hotza dago bainatzeko. Oinak besterik ez ditugu sartu. Hori da eragozpen bakarra, ibili ostean ezin duzula uretan sartu". Halere, Menorca bisitatzeko garai ona da, ez baitago turistez gainezka. "Ez du zerikusirik. Zortea izan dugu gainera, eguraldi zoragarria egin du. Lainotua hasieran, itzal gutxi zegoen tokian, ibiltzeko primeran. Oskarbi ondoren, itzaletan ibiltzeko aukera genuenean", adierazi du Perezek. Iritsi aurreko egunetan kazkabarra egin zuen, ezagun batzuek kontaktu zietenez.

Aste Santua

Edonola ere, ez dute garaia aldatu nahi: "Aste Santua gurea da". Lehenengo bidaiaria "dena ondo" atera zaie, eta beste asko egitea aurreikusitako dute. Urtero-urtero, udaberriko oporraldietan. "Jende askok du jai aste honetan, eta hurrengo urterako beste bidaiaria bat prestatzen hasi gara". Izan ere, taldea osatua dute. "Hamabost pertsona baino gehiago joatea ez da komenigarria, erantzukizun handiegia da bestela". Hasi dira norakoak begiratzen eta aztertzen, baina oraindik ezin dute aurreratu nora joango diren. Gauza ziurra da: ibilaldi politak egiteko aukera eskaini behar du lurraldeak. "Gainera, turismo egiteko denbora gehiago utziko dugu. Oraingoan ez dugu horrelakorik aurreikusitako". Mahon eta Ciudadela hiriak bisitatu dituzte, baina faltan bota dute tarteko egun bat turismoa bakarrik egiteko. "Ondo etorriko zaigu, pixka bat deskantsatzeko", dio Perezek.

Batez ere taldean bizi duten giro ona nabarmendu dute Perezek eta Ormazabalek. "Oso batuta gaude, familia baten antzera. 81 urteko pertsona bat ere taldean dago, eta mezu bat utzi zigun, eskerrak emateko horren ondo zaintzeagatik".

Menorcan ezagutu duten pertsonekin ere "primeran" moldatu dira. "Autobus gidariak, hoteleko langileak, zerbitzariak... Denak oso jatorrak izan dira gurekin". Izan ere, Ostadarreko

"EGUNEAN HAMAR KILOMETRO BAINO GEHIAGO EGIN DITUGU. EZINEZKOA LITZATEKE BASTOIRIK GABE"



Eguraldi ona egin arren, ez dute bainatzeko aukerarik izan, garaiotan hotza baitako itsasoko ura. Baldintza bakarra jarri zuten: egun batean behintzat Ostadarreko elastikoa janztea. OSTADAR IPAR MARTXA

kideek arrastoa utzi dute uhartean. "Oso alaiak gara. Hotelean ere tarta bat oparitu ziguten azken egunean, txokolatezko irribarre batekin".

Lau ibilbide

Guztira lau etapa egin dituzte, bederatzi eta hamabost kilometro artekoak. Cala Tirant, Mesquida Favaritz, Cala Galdana eta Santo Tomas ibilbideak egin dituzte. Askotan kilometro kopuruak ez du ematen etaparen zailtasuna, ibilbidearen beraren ezaugarriak baizik. "Bidea zaila zen, gorabeheratsua, eta harri tartean". Toro mendira ere bisitaxoa egin dute, uharteko punturik altuenera. "Ez zegoen programatua, baina autobus gidariak eraman gintuen. Uhartea osoa ikusten da hortik".

Ibiltzeko uharte aproposa da. Cami de Cavals osoa markatuta dago, eta kilometro erreferentziak jartzen dituzte, uneoro norbera zein puntutan

"IBILBIDEAK UHARTEKO KULTURA ETA HISTORIA EZAGUTZEKO AUKERA EMATEN DU"

dagoen jakiteko. Horrez gain, bide horiek aukera ematen dute uharteko historia eta kultura ezagutzeko. "Antzina egindako hormak, olibondoekin egindako hesiak... ikusi ditugu".

Egun osoa igaro dute kanpoan. Goizean ongi gosalduta ondoren atera, eta 17:30ak inguruan bueltatzen ziren. "Lasai biltzen ginen, argazkiak atera, paisaiak ikusi... Azkar ibiltzeko hemen badugu aukera, han lasai aprobetxatu nahi genuen denbora". Ibilaldia egin ondoren *hirugarren denbora* izan dute. "Dutxa bat hartu, garagardo bat, eta bueltatxo bat ematera atera gara".

Euskara da ipar martxako taldearen beste ezaugarri bat. Taldearen hizkuntza da, eta batzuei gaitasuna hobetzeko balio izan die. "Donostiako neska bat etorri da gurekin, eta ez zekien oso ondo, baina azkenean moldatu da. Mezua idatzi digu, esanez talde polit bat aurkitu duela, eta asko hobetu duela".

Hurrengo urteko bidaiak prestatu bitartean, asteroko hitzorduak fidel jarraituko diote Ostadarreko kideek. Jende asko bildu ohi da zitara. Orain, egunak luzeagoak direla-eta, gehiago. "Inork ez dauka konpromisorik. Ez dago astero-

astero etortzera behartua. Hori asko gustatzen zaie. Ez dute ezer ordaintzen, nahi badute joaten dira orduan".

Asteazkenero zita

Eguraldi txarrarekin ere biltzen dira. Euria egiten badu, trinketean. Bestela, hipodromoko zubian. Eguraldi onarekin buelta luzeagoak


egiten dituzte, luzatze ariketak eta saltoak egiteaz gainera. Edozeinentzako ariketa fisiko egokia da. Baldintza bakarra jartzen dute haiekin praktikatu ahal izateko: ikastaro bat egitea eta segurua ordaintzea. "Bost euro besterik ez dira ordaindu behar. Ikastaroa guk ematen dugu, Ostadarren", dio Ormazabalek.

Bastoiak mugitzearen teknika barneratua izan behar da egoki ibiltzeko; asko laguntzen dute makilek. "Menorcan egin duguna ezinezkoa litzateke bastoirik gabe", azaldu du Ormazabalek. "Ez da babesa bakarrik. Hegan egiten duzu, aurrera bultzatzen zaitu". Mendian ere erabili ohi dira bastoi horiek. "Mendian baino gehiago laguntzen zaituzte ibiltzen".



Bidaiaren arrakasta ikusita, hurrengo urterako beste bat prestatzen hasiak dira. OSTADAR IPAR MARTXA

PLAZAN BAZAN




Udaberriko piknika

Ai, ene! Hau da desastrea! Baina lasai, piknika bukatutakoan den-dena bilduko dute-eta.

Bila itzazu elementu hauek:



mozoloa



tiragoma



bixigua



jostailuzko automobila



sardexka

zapia



Zenbat animalia daude guztira? Zomorroak ere kontuan hartu.

Itzala

Lupak erakusten duen zomorrotxo kakati hori zer ote da? Mega birus bat? Zorri mutante bat? Molekula erradioaktibo bat? Edozer dela ere, itzal zuzen bakarra dauka, zein da?



Zazpikoa

Bi irudi hauen artean dauden aldeak bila itzazu. Zazpi dira guztira.



Lopez Lore Lagundu erleari erlauntzara iristen. Bidean aurkituko dituzun loreetako hizkiek esaera zahar bat osatzen dute. Idatz itzazu ordenean beheko biribiletan eta jakingo duzu esaera zein den.



Zakarrontzia

Martintxo zakarrontzira zerbait botatzen ari da. Zer ote da? Matematika azterketa? Egurdiko azalorea? Isilka jan dituen goxokien bildukiak? Arrebaren jostailua? Zer izan liteke zure ustez? Marraz ezazu.



"Ikaragarria da mutil hauek egin dutena"

Buruntzazpiko Txirrindularitza Eskolako hiru kadetek parte hartu dute Espainiako Pista Txapelketan, eta hainbat domina irabazi dituzte. Jaime Romero, Beñat Carbayeda eta Asier Pozoren dedikazioa nabarmendu du Eugenio Pozo eskolako entrenatzaileak

Adrian Garcia

Harrobia mimoz lantzen dute Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolan. Bizikletarekiko pasioa transmititzen saiatzen dira, eta emaitzak ikusita, badirudi lortu dutela. Kadeteen Euskal Selektzioak Espainiako pista txapelketa jokatu du. Marka lortu du Buruntzazpi, hautatutako bost txirrindularitik hiru baitira eskola horretakoak: Beñat Carbayeda, Asier Pozo eta Jaime Romero. "Guretzako ikaragarria da, oso pozgarria da. Mutil hauek egin dutena egundokoa da. Oso langileak eta konprometitua dira", kontatu dio TXINTXARRI-ri Eugenio Pozo entrenatzaileak, harro. Parte hartu bakarrik ez, domina batzuk ere ekarri dituzte bueltan Lasarte-Oriara.

Pozo eta Carbayeda lasarteoriatarak dira. Romero, ordea, Astigarrakoa. Talde indartsua osatzen dute hirurek. "Gogorra izan da txapelketa.



Buruntzazpikoak, taldekako pertsekuzioa irabazi ostean. EUGENIO POZO

Ez bakarrik fisikoki, batzuetan ere gaizki pasa dugu moralki". Taldekako pertsekuzio urrezko domina irabaztean askatu zituzten presio guztiak. "Azkeneko egunean izan zen hori, oso pozik geratu ginen",

azaldu du Asier Pozo txirrindulariak.

Besteekiko abantaila bat bazuen Euskal Selektzioak. Hiru taldekideak izanik, elkar ulertzea errazagoa izan dute. "Entrenamendu asko egin ditugu

erreleboak ongi egiteko". Pozo entrenatzailearen ustez, giltzarria izan da hori taldekako pertsekuzioan urrea lortzeko. "Ez zuten irabazi indartsuagoak zirelako. Ongi sinkronizatu ziren, eta amaieran indartsuago bukatu zuten".

Romerok eta Pozok eskarmentu handiagoa dute horrelako txapelketetan, bigarren urteko kadeteak dira eta. Carbayeda, ordea, lehenengo urtekoa da, eta ikastea tokatu zaio. "Primeran egin ditu gauzak, normalena da hurrengo urtean hautatua izatea", dio entrenatzaileak.

Errepidea

Pistako denboraldia bukatutzat eman dute txirrindulariek, eta errepidean jarriko dituzte orain indar guztiak. Halere, nahiz eta lasterketak dituzten ia astebururo, lasai hartuko dute aldi honetan, berriro maiatza edo ekaina alderako sasoi betean egoteko.

Errepidea ere gustatzen zaie hirurei, eta ongi moldatzen dira lasterketetan. Gipuzkoako errepideko sailkapenean lehen hamarretan daude. Pozo doa lehenengo, lasterketa asko falta diren arren oraindik. "Oso erregularrak dira, konstantzia asko dute".

Romerok eta Pozok helburu berbera partekatzen dute. Maiatza aldean fin ibili nahi dute Espainiako txapelketarako hautatuak izateko. Carbayedak

Txapelketako emaitzak

Scratch

- Jaime Romero: urrea
- Asier Pozo: brontzea

Pertsekuzioa (2km)

- Asier Pozo: brontzea

Pertsekuzioa taldeka

- Euskal Selektzioa: urrea

badaki zaila izango duela, lehenengo urteko kadetea izaki. "Gipuzkoako txapelketa egin nahi nuke ongi".

Talde txikia da Buruntzazpi; badaude dozena bat txirrindulariok. Horregatik, euren jokaldia egiteko orduan zuhurtziaz aritu behar dira. "Ezin dugu beste taldeek bezala ihesaldi bat botatzeko denak lanean jarri", dio Pozo entrenatzaileak.

Hiru txirrindulariek ezaugarri desberdinak dituzte; Romerok esprint boteretsua du, eta, beraz, komeni zaio tropelean gordeta itxarotea. Carbayeda lehen urtekoa izanik, arriskatu egin behar du, eta ihesaldietan sartu. Pozok erresistentzia handia du, eta "lasterketaren arabera" mugitzen da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONALEN IGOERA FASEA

Lagun Onak - Ostadar SKT

Larunbata. 17:30. Garmendipe, Azpeitian.

ERREGIONAL PREFERENTEIA

Ostadar SKT - Billabona

Larunbata. 17:30. Michelinen.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Billabona

Larunbata. 15:45. Michelinen.

JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA

Ekintza A - Ostadar SKT

Larunbata. 19:15. Berio, Donostian.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Euskalduna - Ostadar SKT

Igandea. 12:30. Ubitarte, Andoainen.

KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA

Ostadar SKT - Arrasate

Larunbata. 12:45. Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Insauti Kattagorri - Asador Irigoien

Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.

Izen gabe - Avenida taberna

Larunbata. 10:30. Kirolgunean.

Trumoi Taberna - Txoko Taberna

Autocares LuisCar

Larunbata. 11:30. Kirolgunean.

Viña del Mar - Buenetxea

Larunbata. 12:30. Kirolgunean.

3. NAZIONAL MAILA

Goierrri - Eguzki Antonio Aroztegia

Igandea. 18:00. Aldiri kiroldegia, Urretxun.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

ISU Leihok Eguzki - Iurre Taberna Tolargi

Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

Trumoi taberna Eguzki - Trintxerpe

Igandea. 11:15. Kiroldegian.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Power Rangers 1896 - Cecilia

Frutadenda Eguzki

Ostirala. 20:30. Elorsoro kiroldegia, Oiarzun.

JUBENILAK

Anoeta - Bar Lasarte Eguzki

Igandea. 12:15. Anoetan.

SASKIBALOA

SENIORRA 1. MAILA

Antigua Luberrri - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Benta Berri, Donostian.

SENIORRA 3. MAILA

Zarautz Zast - Ostadar SKT

Larunbata. 20:00. Antoniano, Zarautzen.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Bera Bera Uliia

Larunbata. 11:00. Kiroldegian.

JUNIOR PARTIZIPAZIOA

Ostadar SKT - Aelvasa Oiarso

Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

KADETE ERRENDIMENDUA

Eskoriatza - Ostadar SKT

Igandea. 10:00. Eskoriatzan.

KADETE PARTIZIPAZIOA

Super Amara Oiarso - Ostadar SKT

Larunbata. 12:30. Don Bosco, Errenterian.

IGERIKETA

UDABERRI TXAPELKETA

Infantil, Junior eta Absolutuek Udaberri

txapelketako lehen jardunaldia

lehiatuko dute.

Larunbata. 16:00. Usabal kiroldegia, Tolosan.

ANTONIO SANCHEZ MONDEJAR

OIROIMENEZKOA

Haitz Mitxelena tadekideak I. Antonio

Sanchez Mondejar, -Antuan-Oroimen

txapelketan parte hartuko du.

Larunbata. Gijon.

LES 28^{EME} NAUTIKUES DE TARBES

Paula Sevillano, Ainhoa Martin, Leire

Martin eta Aintzane Sarobe taldekideak

Gipuzkoako Selektzioarekin "Les 28^{eme}

Nautiques de Tarbes" lehiaketan arituko

dira.

Larunbatetik igandera. Tarbe, Frantzia.

PILOTA

BURUZ BURUKOA

Arteaga II - Elezkano II

Igandea. 17:00. Astelehena, Eibarren.

4 T'ERDIKO TXAPELKETA

Jauregi - Iruretagoiena

Ostirala. 18:30. Ikaiztegiatan.

Altuna - Iribar

Ostirala. 18:30. Alegin.

Aranburu - Solano

Larunbata. 11:00. Errenterian.

GIMNASIA ERRITMIKOA

AMATEUR TXAPELKETA

LOKEko gimnastak Amateur

txapelketako bigarren fasean lehiatuko

dute, taldeka zein bakarka.

Larunbata. Goizez. Bergaran.

LASTERKETAK

DONOSTIAKO MARATOI ERDIA

Lasarte-Oriako hainbat lasterkerik

eman dute izena 21 kilometroko eta

10 kilometroko probatan.

Igandea. 10:00. Donostian.

MENDI LASTERKETAK

III. LEHARREI MENDI LASTERKETA

Iurgi Los Arcos eta Mikel Granado

herritarrek 24 kilometrotako ibilbidea

egingo dute.

Larunbata. 09:30. Gabirian.

VII. KILIMON TRAIL

Mikel Ubegun herritarrek 23

kilometrotako proba egingo du.

Larunbata. 16:00. Mendaron.

BERAKO MENDI MARATOI ERDIA

Lasarte-Oriako hainbat lasterkerik

eman dute izena. Hogeita bat

kilometrotako ibilbidea osatu beharko

dute.

Igandea. 09:30. Beran.

SQUASH

TXAPELKETA SOZIALA

XXX. Squash txapelketa sozialeko

partidak jokatu dira.

Astelehenetik ostiralera. 18:00. Kiroldegian



Ainhoa Martin podiumean. BURUNTZALDEA IKT

Ainhoa Martin, Espainiako txapeldun

Maila paregabea erakutsi dute Martin ahizpek eta Paula Sevillanok, Pontevedran (Galizia): Ainhoa Martinek urrea kolporatu du 200 bular proban, eta brontzea 100 bularrean. Horrez gain, Nahia Zudairek Espainiako lau errekor berri ezarri ditu

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilariak denboraldi oso ona ari dira egiten, eta asteburu erakusten dute. Ainhoa eta Leire Martin ahizpek eta Paula Sevillanok emaitza bikainak lortu dituzte Pontevedran (Galizia), infantil mailako Espainiako Neguko txapelketan. Ainhoa Martinek, esaterako, urrea irabazi du 200 bular proban, eta brontzea 100 bularrean. Errekor berriak ezarri eta markak ondu dituzte hiru kirolari gazteek.

Emaitzei so eginda, Ainhoa Martin izan da protagonista nagusia. 200 bularreko sailkapen serieetan erakutsi zuen. Sekulako igerialdia eginda, 02:36.98ko denbora puska egin, eta txapelketako errekorra ezarri zuen diziplina horretan. "Oso igerilari gutxi egin dezakete halakorik", nabarmendu du Borja Apeztegia prestatzaileak.

Arratsaldean, finalean, denbora hori berdindu bakarrik ez, ondu egin zuen: 02:36.32. Espainiako txapeldun izan, eta urrezko domina

kolporatu zuen. Estatu mailako errekorra izateaz gainera, taldekoa eta Euskadikoa ere hautsi zuen, jakina. 100 bular probako sailkapen fasean, 1:14.65ean geratu zuen kronometroa, eta aise sailkatu zen final handirako. Proba horretan, urduritasuna tarteko, kosta egin zitzaion bere maila onena ematea, hasieran batez ere. Apurtxo bat atzean geratu arren, maila handiko igerilaria dela erakutsi zuen beste behin, eta postuak irabazten joan zen, 1:14.56ko denbora egin eta brontzea poltsikoratzeraino. Azken egunean, Leire ahizparekin batera 200 metro lau estiloak proban aritu zen, eta finalera sailkatu ez arren, marka pertsonala ondu zuen, 02:31.12ko denbora eginez.

Nahia Zudaire ere, ezinhobeto

Nahia Zudaire Buruntzaldea IKTKo igerilariak ez du aukerarik utzi. Erabat nagusi izan da Castellon jokatu den Espainiako Igeriketako Egokituko Txapelketan. S8 kategorian lehiatu du. Lau marka berri ezartzeaz gainera, Europako

Txapelketarako hiru txartel eskuratu ditu. Abuztuaren erdialdean jokatu du Dublinen txapelketa hori.

Begiz jota zituen Buruntzaldea IKTKo Europan lehiatzeko gutxiengo markak. Baina aurreikuspenak gainditu ditu igerilari gazteak. 100 metro librean 1:14.99 denbora egin, eta hiru segundoko jaitsi du langa. 400 metro librean are handiagoa izan da nagusitasuna (5:36,39). Gutxieneko marka baino hamabi segundo gutxiago behar izan ditu. 50 librean ere lortu zuen Europan lehiatzeko eskubidea (35,73).

Baina hori bakarrik ez. 100 metro tximeletan ere Espainiako marka berria ezarri du (1:27,55), aurreko hiru probatan bezalaxe. Horrez gain, lau estiloetako 200 metroko proban ere irabazi du lasarteoriatarak. Denetan ondu ditu marka pertsonalak.

Mikel Esnal ere "bikain" aritu da Malagan, eta marka pertsonala onduta amaitu zuen Espainiako Udaberriko Absolutu Txapelketa.



Arteaga II.a, Michelingo frontoian jokatuako partida batean. TXINTXARRI

Arteagak buruz buruko txapelketa jokatu du estreinekoz

Lehen partida Elezkano II.aren aurka jokatu du igandea arratsaldean, Eibarko Astelena pilotalekuan

Txintxarri

Asier Arteaga pilotariak eskuz banakako txapelketa nagusia jokatu du, 2017. urteko Promozioko txapela eskuratu zuen eta.

Txapelketan hamasei pilotari izango dira lehiatzaileak: Arteaga bera, Urrutikoetxea, Olaizola II, Artola, Laso, Victor, Albisu, Iribarria, Altuna III, Ezkurdia, Zabaleta, Retegi Bi, Elezkano II, Rezusta eta Jaka.

Lehiaketa gaur ostirala hasiko da, eta final-hamaseirenetako lau partida jokatuko dira.

Arteaga II.ak Elezkano II.aren aurka egingo du debuta txapelketa nagusian. Igandea arratsaldean Eibarko Astelena pilotalekuan izango da hitzordua, 17:00etatik aurrera.

Partida irabaziz gero, Artolaren aurka jokatu beharko du pilotari lasarteoriatarak.

Hirugarren eta laugarren postuak maiatzaren 11n erabakiko dira. Final handia,

berriz maiatzaren 19an jokatu da.

Lau t'erdiko txapelketa

Intza elkarteko Artetxe, Solano, Iruretagoiena eta Iribar, berriz, Gipuzkoako eskuz banakako lau t'erdiko txapelketan murgilduko dira.

Artetxek aste honetan atsedena du; Solanok EPLEko Aranburu izango du aurrez aurre; Iruretagoienak Intxurreko Jauregiren aurka jokatu du; eta Iribarrek, azkenik, talde bereko Altunaren aurka du buruz burukoa.

Bestalde, martxoaren 23an Intzako Artetxe-Elola senior bikoteak Udaberriko Sariko finala galdu zuen. Intzakoak finalera indartsu iritsi arren, Azkoitiako bikotea gailendu zitzairen. Aukera gutxi eduki zuten Artetxe aurrelariak eta Elola atzelariak; nagusi izan ziren azkoitiarrak, markagailuak erakutsi bezalaxe: 22-06.

Lasarte-Oria Traileko kideak, Berako Mendi maratoni erdian

Igandean, apirilak 15ean, Manttale Mendi elkarteak antolatzen duen Berako Mendi Maratoni Erdi entzutetsua jokatu da, eta bertan izango dira Lasarte-Oria Trail taldeko kideak lehiatzaileak. Denera, hamalau herritar izango dira Berako irteeran.

Apirilaren 1ean, Lasarte-Oria Traileko kideak Berara hurbildu

eta entrenamendu modura, 21,150 metroko ibilbidea egin zuten. Eguraldia lagun, igandeko proba ederki prestatu zuten, nahiz eta lokatz pixkat aurkitu zuten bidean.

Baina ez da hau asteburu honetan dagoen mendi lasterketa bakarrik Bihar larunbata, Gabirian III. Leharrei Mendi lasterketan parte hartuko dute Iurgi Los Arcos eta Mikel Granado herritarrek. Mikel Ubegun, berriz, Mendaroko VII. Kilimon trail proban izango da lasterka.



BTT trabesiako 2017o edizioan parte harzaileek euriari eta lokatzari aurre egin behar izan zioten. TXINTXARRI

BTT trabesiak ibilbide berriak izango ditu

BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria trabesia apirilaren 22an jokatu dute. Ibilbide berriak direla eta, bideak ezagutzeko hitzordua dago igandean, apirilaren 15ean. Aurten bizikleta elektrikoan ere egin daiteke proba. Izena ematearekin batera oparia banatuko dute

Txintxarri

BTT txirrindularitzako zaletuek hitzordua polita dute apirilaren 22an: BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria trabesia. Zortzigarren edizio honetako berrikuntza nagusia ibilbide aldaketa da.

BTT Lasarte-Oria Trabesia irekia da, edonork parte hartu dezake. Okendo plazatik aterako diren bi ibilbide izango dira, bata adituentzat eta bestea amateurentzat.

Zirkuitu berria izango da aurten, ordea. Txirrindulariek, beraz, argi ibili beharko dute egun hauetan probako sare sozialetan eta webgunean, antolatzaileek bertan argitaratuko baitituzte bide berriak.

Hala ere, igande honetan, apirilaren 15ean, nahi duten parte hartzaileek ibilbideak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. Hitzordua goizeko 8:00etan izango da, hipodromoko zubian.

Aurtengo edizioan bada beste berrikuntza bat ere: bizikleta

elektrikoak erabili ahalko dira trabesia egiteko.

"Trabesia bat denez eta ez txapelketa, aurten txirrinda elektrikoan parte hartzea baimendua egongo da", azpimarratu dute antolatzaileek. Nahi duenak, beraz, bere txirringa elektrikoarekin parte hartu dezake.

Mendiko bizikleta edo elektrikoak, parte hartzaile guztiak Antonio Mercero plazako helmugara iritsiko dira. Bertan indarrak berreskuratzekeo garagardoa eta Patxi Larrañagak eskaintzen duen txistorra dohainik izango dute. Txirrindularien lagun eta senitartekoek ere janari eta edariaz gozatu dezakete.

**IZENA EMATEA
MARTXAN DA ETA
ERRITMO BIKAINA
DARAMALA ADIERAZI
DUTE ANTOLATZAILEEK**

BTT Lasarte-Oria trabesiaren izena ematea martxan da dagoeneko. Apirilaren 15era arte, partehartzaileek 15 euro ordaindu behar dituzte; azken astean, berriz, inskripzioa 18 eurokoa izango da. Betiere, txirrindularitza lizentzia indarrean badute.

Lizentzia izan ezan, hiru euro gehitu behar zaizkio izena emateari segurua dela eta.

Antolatzaileek adierazi dutenez, izen emateak erritmo bikaina du, eta giro ederra bermatua dago.

Dortsalarekin batera, kaskoa babesteko zorro eder bat jasoko dute txirrindulariek. Baina ez da opari bakarra izango; arte hartzaileei opari desberdinak egokitu ahalko zaizkie amaierako festan egingo duten zozketan.

Hurrengo asteetan zehar opariak zeintzuk izango diren zehaztuko dute, baina probako laguntzaileen produktuak izango direla aurreratu dute antolatzaileek.

Squash erraketak prest, XXX. txapelketari hasiera emateko

Aurten hamalau parte hartzaile izango dira txapelaren bila. Partidak astean zehar jokatu dira, arratsaldeetan

Txintxarri


Guztia prest dago Kirol Zerbitzuak antolatzen duen XXX. Squash herri txapelketari hasiera emateko. Astelehenean ekainera arte, astean zehar bina partida jokatu dira egunero, 18:00etatik aurrera Maialen Chourraut kiroldegian.

Hamalau parte hartzaile izango dira lehian. Iazko txapelketa Inaki Garciak ez du parte hartuko, beraz, lehia bizia izango da. Alabaina bada aurreko urteetan txapela eraman duenik, Kinin Calvo esate baterako.

Urtero bezala, hiru fasetan banatu da txapelketa. Lehenengoan, liga sistema jarraituz bi taldeetan banatuko dira jokalaria. Talde bakoitzeko lehen hirurak sailkatuko dira txapelketa faserako.

Txapelketa fasetan ere liga jokatu dute. Ligaxkaren lehenengo biek finala jokatu dute, eta hirugarrenak eta laugarrenak kontsolazio finala.

Fase honetarako sailkatzen ez direnek kontsolazio fasea jokatu dute, kanporaketa sistema jarraituz.



JON ZUGASTI

Trinko, talde lana sendotzen

Trinko Triatloi taldeko sei kidek apirilaren 7an Nafarroako Eguesibarreko taldekako duatloian parte hartu zuten. Ibilbidea hiru eremutan zegoen zaituta: 5.240 metro lasterka, 24.115 m. txirrintan, eta azkenik, 2.468 metro lasterka. Lasarte-Oriako taldeko kideek ordu bat 20 minutu eta 51 segundo behar izan zituzten helmugara iristeko.

Kinballa kirol sustapeneko apirileko saioan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak Kinball saio berezia antolatu du apirilaren 21ean larunbata arratsaldeko 16:30ean, Michelingo kirol guneko pilotalekuan. 2006 eta 2009 urte artean jaiotako neska-mutilei zuzendutakoa saioa da.

Kinballa talde-kirola da, eta baloi erraldoi batekin jokatzen da. Hiru talde aldi berean aritzen dira eremu

jakin batean. Talde bakoitzak bere kolorea du. Taldeetako batek baloia edozein norabidetarantz bota eta, aldi berean, jaso behar duen taldearen kolorea esaten du. Kolore hori duen taldeak lurra ukitu baino lehen jaso behar du. Jaso ezan, beste taldeek puntuak lortzen dituzte.

Interesa duten pertsonak Maialen Chourraut kiroldegiko bulegoan eman behar dute izena. Plaza kopurua mugatua da eta izen-emate zerrenda errespetatuko da.

Jarduera doan izango da udal kirol instalazioen bazkideentzat.

ZORION AGURRAK




Maialen
Zorionak, printzesa!!!
Ondo pasa zure egunean.
Muxu handi bat denon partetik. Asko maite zaitugu.



Amaior
Zorionak gure etxeko printzesa! 10 muxu potolo. Oso ondo pasa bihotza zure egunean. Asko maite zaitugu. Ekaitz, aitaxo eta amatxo.




Aintzane
ZORIONAK politta eta muxu potolo sorta etxekoen partez.




Sara
Zorionak Sara. 10 muxu goxo famili guztiaren partez politta!!!



Iraia
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure 11garren urtebetetzean. Muxu pottolo pottolo amatxo, aitaxo eta Leireren partetik.



Nahia
Zorionak bihotza zure 6. urtebetetzean! Zein azkar eta zein haundia egin zaren! Disfrutatu familia eta lagun artean, eta jarraitu gure bizitzak alaitzen! Inifinitu maite zaitugu! Ekhi, amatxo, aitaxo



Jon
Zorionak zure 11. urtebetetzean, ondo ondo pasa eta jarraitu zorionsu ta alai. Maite zaitugu!!!



Olaia
Zorionak pitu, zure 11. urtebetetzean.

GUTUNAK

Bada garaia! Presoak kalera

LASARTE-ORIAKO EUSKAL PRESO POLITIKOAK

Kaixo herrikideok!

Aspaldiko urte luzetatik gauzkate Espainia eta Frantziako espetxetan bahituran. Xanti, 30 urte eta sei hilabetez honezkero, 20 urte eta sei hilabetez Jabi, 14 urte eta lau hilabetez Ibon eta 9 urte eta lau hilabetez Aitzol. Espainia eta Frantziaren bahitze eremutan eusten. Xanti eta Ibonen kasuak ditugu urjentziaz konpondu beharrekoak, 1987tik espetxean daukaten Xantirena eta esklerosi anizkoitza kartzela zuloan pairatzen ari den Ibonena.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) egin berri duen eztabaidan, gatazka bere osotasunean konpon dadin gure esku dagoen guztia egiteko prestasuna agertu dugu eta urrats zehatzak egiten gabiltza geroztik. Artean, Espainian lehen gradutik bigarrenera pasatzea eskatzen, lege ibilbide bat egin ahal izateko ezinbesteko urrats gisa. Eskaera individual horiei, ordea, EZezko kolektiboarekin erantzuten ari da Espainia. Estatuaren betiko harrokeria, larderia eta zapaldu nahia oso ageriko, Herrien kartzela den estatu horretan. Frantziaren, behingoagatik, lehen hurbilketak hasita daude eta pixkana Lannemezan eta Mont de Marsan espetxetan biltzen hasita gaude, oraindik ere keinu uzkurak izan arren.

Egoera larriez harago, urte luzetako gatazka bati irtenbide oso bat ematea ezinbestekoa da, Herri bezala preso eta iheslari politikorik gabeko egoera

bat nahi eta behar dugu. Bada eta garaia!

Aldarri hauen bueltan, datorren apirilaren 2lean Bilbon, La Casillatik 17:30etan abiatuta, egingo den manifestaziora joateko deia luzatu nahi dizuegu kartzela zulo hauetatik. Gu ere han izango gara zuekin bat eginez, barruaren eta kalearen arteko zubia osatuta, badela libre izateko garaia oihu eginez.

EPPK gatazkari konponbide osoa nola eman, horretan ari da lanean euskal eragile desberdinekin elkarlanean eta horretan jarraituko dugu etsi gabe.

Batasuna, Elkartasuna eta Herriarenganako lotura!

Amnistia eta Independentzia!

Gema Gonzalez De Txabarriri eskutitz irekia

LANDABERRI IKASTOLAKO IRAKASLE KEZKATUAK

Gema Gonzalez de Txabarriri, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkariri hori:

Hasteko, eskertu nahi dizugu hirugarren aldi honetan Landaberriko irakasleoi erantzuteagatik.

Hala ere, gure zentrutik kilometro eskaxeko distantziara eraikitzen ari diren errauskailuak irakasleonek eta ikasleonek osasunean eragin litzazkeen ondorietaz argibideak eskatu genizkizun eta hauxe erantzun duzu: "Ordezkaritza honetako ekimen eremua gainditu egiten du".

Ez dugu onartzen zure erantzuna. Hezkuntza buru zaren heinean, badagokizu ere ikastetxeetako osasun

baldintza egokien bermatzaile izatea.

CSIC-en Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusian ari diren Eduard Rodriguez eta Fernando Palacios ikerlariek berriki jakitera eman dutenez, Zubieta erraustegiaren ingurumen baimen integratuak gabezi handiak ditu ez dituelako aintzat hartu hainbat substantzia arriskutsu, horien artean metal astunak.

Errauskailuak sortuko litzuzkeen dioxinak, nitrogeno oxidoak, eta arsenikoa armastuko genuke.

Ikastetxean jarrita genituen eta errauskailuarekiko kezka adierazten duten pankartak kentzeko agindua eman zenuen, ordea. Eta hori bai zure ekimen eremutik kanpo dagoela, Hezkuntza Ordezkarria. Administrazioaren otsailaren 13ko 1/2003 jarraibidearen arabera, ez duzu horretarako eskumenik. Berez, Lasarteko udalari baitagokio eraikinaren kudeaketa eta pankarten inguruko baimen edo agindu ematea.

Gure praktika pedagogikoan ikasleak beren kabuz pentsa dezaten hezten ditugu, gaien inguruan galderak egitera animatzen ditugu eta beren irudipena adieraz dezaten aukera emanez ere jarduten dugu. Aldi berean, hondakinen kudeaketan engaiatuta gaude. Hori dela eta, ezin dugu onartu ikasleekin bereizten ditugun plastikoak erraustegira bidera ditzatela.

Azkenik, zugandik eta Ikuskaritza jaso ditugun presioen aurrean, jakitera eman nahi dizugu ere, gure kezka bere horretan dirauela eta pankartak jarrita jarraitzen dutela gure ikastolan.

OHARRAK

Aterpea 25. urteurreneko afaria

Aterpe Merkatarik elkartek 25. urteurrena ospatzen ari da. Ospakizunen artean, maiatzaren 19an, afaria antolatu du Maialen Chourraut kiroldegian. Ostean, dantzaldia izango da, Ibai Berriak taldeak girotua.

Tiketak 40 euro balio ditu eta maiatzaren 12ra arte izango dira salgai elkarteko dendetan.,

Galizia eta Portugalera bidaiak

Biyak Bat elkartek bidaiak antolatu du Galizia eta Portugaleko iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro. Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 13	ORUE
Larunbata, 14	ACHA-ORBEA
Igandea, 15	ACHA-ORBEA
Astelehena, 16	DE MIGUEL
Astearte, 17	LASA
Asteazkena, 18	GIL
Osteguna, 19	ACHA-ORBEA

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUNA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AKE: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

7			4			3		
8					7			
	4	2		9				
			1	6	5	9		
	6	5	9					
4				2	8			6
							2	5
	1		6			4	7	
				3				8

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALMENTA
Zabaletan Babes Ofizialeko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroa. Prezioa: 154.700 euro. Telefonoa, 661 285 627.

LANA

ESKAINTZA
Biyak Bat elkarteak gizonen ileapaintzailea behar du. Biyar Bat elkartetik pasa dadila interesatua dagoena, 10:30etik 12:30era, astegunetan.

ESKAERA

Etxeko lanak egiteko eta adineko pertsonak zaintzeko esperientziadun pertsona eskaintzen da. Telefonoa: 696 652 161. Preadad.

Adinekoak zaintzeko prest, interna edo externa moduan. Gaez ere bai. Esperientzia handiko pertsona, tituluduna, erreferentziak ere badituz. 678 242 463.

Etxeko lanak eta zaintza lanak egingo nituzke. 648 906 782.

SALEROSKETAK

SALMENTA
Shakirak ekainaren 28an BEC-en emango duen kontzerturako lau sarrera saltzen ditut. 689 709 837
Karcher markako xurgagailu baporizatzailea saltzen da, osagarri guztiekin. Behin bakarrik erabili da. Urtebeteko segurua dauka. Prezioa negoziatzeko prest. 616 932 038.

BESTELAKOA

HEZKUNTZA
Frantseseko, ingelesko eta latineko klaseak emango nituzke, baita eskola laguntzako ere. 600 766 068

JAIOTAKOAK

Gael Bautista Crujeiras. Apirilaren 7an.
Mateo Cuartero Garcia. Apirilaren 6an.
Laia Adan Sanchez. Apirilaren 2an.
Izei Salsamendi Artetxe. Apirilaren 1n.
Iara Guarnido Sanchez. Martxoaren 29an.
Iara Del Valle Godoy. Martxoaren 29an.
Ibai De la Fuente Garcia. Martxoaren 28an.
Laia Landa Gallo. Martxoaren 27an.
Aiur Landa Gallo. Martxoaren 27an.
Magali Matilla Liceaga. Martxoaren 24an.
Ibai Real Citores. Martxoaren 22an.
Unax Montero Avila. Martxoaren 21an.
Alaia Amutxastegi Salsamendi. Martxoaren 20an.

HILDAKOAK

Belén Peciña Echezar. Apirilaren 10an.
Rafael Barkaiztegi Garmendia. Apirilaren 6an.
Sabino Sagardia Lizarralde. Apirilaren 3an.
Pablo Anton Gijon. Martxoaren 31an.
Francisco Sorondo Oyarzabal. Martxoaren 26an.




ESKELAKJARTZEKO: 943371448
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Hita gunearekin Txintxarri en Orogarri edo Eskerona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskelamotaguztiak Txintxarri paperean Txintxarri en 80€
- ▶ Eskelamotaguztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odrizola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Maialen Goikoetxea.

Informatikoa

Benat Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Apirileko feria

Sasoetako I. Apirileko feria antolatu dute Sasoeta Sasoian elkarteko kideek Semblante Andaluz elkarte eta udalaren laguntzaz:

19:00etan, Ostirintxo.

21:00etan, Argiak piztea eta Amaia Gonzalez Caballeroren eskolako kideen dantza saioa.

21:30ean, Musika plazan.

Jaizkibel plaza, 19:00etatik aurrera

LASARTE-ORIA VI. Musika Astea

Danok Kide elkartearen XIII. Musika Topaketen hitzordu berria izango da, Ludwig Vans septetoren kontzertua. Ama Brigitarren komentua, 19:30ean

HERNANI Bertso lehiaketa

BOTA BERTSOA! IV Bertso lehiaketa txikiaren emanaldia eta sari banaketa. Dobera Euskara Elkarteak eta Iraulio Pantalone Bertso Kabiak antolatua. Biteri Kultur etxea, 19:00etan

HERNANI Dantza

Tarla dantza taldeak *Tarla 25 urte dantzan* emanaldia eskainiko du. Kiroldegia, 22:00etan

ANDOAIN Antzerkia

Hika antzerki taldearen *Txarriboda* lana ikusi ahal da. Sarrera, 12 euro. Bastero kulturgunea, 21:30ean

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Apirileko feria

Sasoetako I. Apirileko feria antolatu dute Sasoeta Sasoian elkarteko kideek Semblante Andaluz elkarte eta udalaren laguntzaz:

12:30ean, Duende eta Gitanillas del Alba taldeen emanaldia.

13:00etan, Arrikitaun ikastaroa.

13:30ean, Aisialdia. Rebutito eta urdaiazpikoa bukatu arte.

14:30ean, Paella-jana herrikoa. Tiketen salmenta: Also, Txindoki, Buggi, Mostabo, Aita Amati, 2kn eta Bagri.

17:00etan, Musika eta dantza saioa.

17:30ean, Txokolata haurrentzat.

17:30ean, Semblante Andaluz elkarteko koroak auzoa alaituko du.

20:00etan, Zambra taldearen emanaldia.

23:00etan, Dantzaldia eta argien itzalaldia.

Jaizkibel plaza, egun osoa



LASARTE-ORIA Balioetan hezi jardunaldiak. Danok Kide elkarteak Balioetan hezi jardunaldien hamabostgarren edizioa antolatu du. *...eta zure denbora libre eskainiko bazenio borondatezko lanari?* lelopean boluntaritzari buruz mintzatuko dira. Horretarako Lahar elkarteko eta Nagusilan elkarteko kideak izango dituzte gonbidatu. Aurten Nagusilanen antzerki taldearen emanaldiarekin amaituko dira jardunaldiak. Manuel Lekuona kultur etxea, asteleheneetik ostiralera

LASARTE-ORIA VI. Musika Astea

Sasibill elkarte lirikoak *La Rosa del Azafran* zarzuela eskainiko du. VI. Musika Astearen barruko ekintza da. Sarrera, 12 euro.

Manuel Lekuona, 19:30ean

HERNANI Haur Antzerkia

Dejabu Panpin Laborategiak *Linbo planeta* lana eskainiko du. 7 urtetik gorakoentzako saioa da. Sarrera, 3 euro.

Biteri Kultur etxea, 12:00etan

ASTIGARRAGA Kontzertua

Paddam bikoteak "chanson" frantsesetik zehar bidaia ederra egingo du. Sarrera, 6 euro helduek eta 3 euro adin txikiek.

Kultur etxea, 20:00etan

IGANDEA 15

ANDOAIN Topaketa

Bergara, Loatzo eta Andoaino musika eskoletako flauta ikasleek topaketa musikala egingo dute asteburuan zehar. Amaiera gisa, presattu dituzten doinuen emanaldia eskainiko dute.

Bastero kulturgunea, 12:30ean

USURBIL Haur antzerkia

Maitena Illaramendik *Gatz, titiritorto basatia* txotxongilo antzezlan eskainiko du. Sarrera, 2 euro.

Sutegi kultur etxea, 17:00etan

ASTELEHENA 16

LASARTE-ORIA Balioetan hezi

Danok Kide elkarteak antolatzen duen Balioetan hezi jardunaldien lehen saioa izango da. Lahar elkarteko kideek *Denbora libre eta aisia aktiboa* hitzaldia eskainiko dute.

Manuel Lekuona, 19:00etan

ASTEARTEA 17

LASARTE-ORIA Irakurle Txokoa

Irakurle Txokoko kideek Danele Sarriugarteren *Azal errea* lana aztertuko dute Uxue Alberdiren laguntzaz. Sarriugarte bera ere izango da bertan.

Manuel Lekuona, 18:30ean

LASARTE-ORIA Balioetan hezi

Boluntariotzaren eginkizuna egungo gizartearen hitzaldia ere eskainiko dute Lahar elkarteko kideek. Balioetan hezi hitzaldi sortako bigarren saioa da.

Manuel Lekuona, 19:00etan

ASTEAZKENA 18

LASARTE-ORIA Balioetan hezi

Danok Kide elkarteak antolatzen duen Balioetan hezi jardunaldien barruan Nagusilan elkarteak bere helburu eta proiektuen berri emango du.

Manuel Lekuona, 19:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Una familia feliz
Igandea: 17:00.

Sin rodeos
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Campeones

Ostirala: 15:50, 18:30, 19:00, 20:00, 21:45, 00:25.

Larunbata: 15:50, 18:30, 19:00, 20:00, 21:45, 00:25.

Igandea: 15:50, 18:30, 19:00, 20:00, 21:45.

Leo Da Vinci: Misión Mona Lisa
Ostirala: 16:30 (eusk.), 18:20.

Larunbata: 16:30 (eusk.), 18:20.

Proyecto Rampage
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40,

00:30 (3D), 01:00.

Larunbata: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 00:30 (3D), 01:00.

Igandea: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40.

La tribu
Ostirala: 15:45, 18:20, 20:15, 22:35, 00:35.

Larunbata: 15:45, 18:20, 20:15, 22:35, 00:35.

Igandea: 15:45, 18:20, 20:15, 22:35.

Leo Da Vinci: Misión Mona Lisa
Ostirala: 16:30 (eusk.), 18:20.

Larunbata: 16:30 (eusk.), 18:20.

Peter Rabbit
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40,

Igandea: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40,

18:20.

Un pliegue en el tiempo
Ostirala: 16:30.

Ready Player One

Ostirala: 16:15, 19:10, 21:55, 00:40.

Larunbata: 16:15, 19:10, 21:55, 00:40.

Igandea: 16:15, 19:10, 21:55.

Juego de ladrones: El atraco perfecto
Ostirala: 19:00, 21:50, 00:35.

Larunbata: 19:00, 21:50, 00:35.

Igandea: 19:00, 21:50.

Peter Rabbit
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40,

Igandea: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40,

18:20.

Un pliegue en el tiempo
Ostirala: 16:30.

Pacific Rim: Insurrección
Ostirala: 00:25.

Larunbata: 00:25.

Tomb Raider
Ostirala: 16:40, 22:05.

Larunbata: 22:05.

Igandea: 22:05.

El justiciero
Ostirala: 22:10.

Larunbata: 22:10.

Igandea: 22:10.

Gorrión Rojo
Ostirala: 21:40, 00:30.

Larunbata: 21:40, 00:30.

Igandea: 21:40.

Sin Rodeos
Ostirala: 20:10.

Larunbata: 20:10.

Igandea: 20:10.

El hijo de Bigfoot
Larunbata: 17:00.

Igandea: 17:00.



LABURPENA

Sin rodeos

Zuzendariak: Santiago Segura. **Gidoilariak:** Marta Gonzalez de Vega, Benigno Lopez, Santiago Segura. **Herr:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Maribel Verdu, Diego Martin, Rafael Spregelburd, David Guapo, Cristina Pedroche, Santiago Segura. **Iraupena:** 87 minutu.

Sentimenduak ezin azaleratu

Nicolas Lopez txiletarrak 2016an kaleratutako *Sin filtro* komediaren bertsio berria da *Sin rodeos* filma. Santiago Segurak moldatu eta bere egin du. Emakumearen ahalduzaren bere ikuspegia eskaintzen du zuzendariak. Film hau *Torrente* sagaren ostean, zuzentzen duen lehen komedia da. Protagonistaren papera Maribel Verduk egiten du eta honekin batera aktore eta pertsonaia ezagun ugari parte hartzen dute, hala nola, David Guapok, Cristina Pedrochek, Kike San Franciscok, Olvido Gara *Alaskak* edo Santiago Segura zuzendariak berak.

Pazek bizitza perfektua duela dirudi. Lana, bikotea, lagunak

ditu, baina ez dago ondo. Bere gustoko ez diren gauza asko ditu inguruan. Nahigabetua eta kezkatua dago, ezin baititu bere sentimenduak agerian utzi.

Egun batean ohiz kanpoko terapia egitea erabakitzen du. Amil Narayan "sendagile" hinduaren kontsultara doa eta honek tentsioak askatzeko landare bereziekin egindako edabe bat ematen dio. Oso eraginkorra omen da.

Edatearekin batera Pazek efektuak sentitzen ditu. Bere sentimenduak azalaratzeko arazorik ez du. Guztiei gauzak aurpegira esan eta bere lekuan jartzen ditu.

KOMIKIA



PUBLIZITATEA



Ttakuneko bazkide zara?

Apirilean Imanol Urbietaren "Kanonak" kantu-liburua zozkatuko dugu gure bazkideen artean. Zozketan sartzeko, eman izena apirilaren 26a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, Ttakunen bulegoan edo 646 82 44 66-ra whatsapp-a bidalita.



Bazkideza
informazioa



@TtakunKE

euskara bada errenta



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK AUERRERA
AUTOLIKIDAZIOA ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN AUKERA

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>

Albisteak elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
UDAL EUSKARA BATZORDEAK



Gama altuko
2mó
betaurreko
progresibo
249€
GRADUAZIO GUZTIETARAKO

www.multioplicasgipuzkoa.com

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan